

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### HARANeko UDALA

#### **Jendaurrean jartzea LHOZren 2019ko erroldak**

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren Foru Arauak 21.2 artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen dira: Landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda, jabetza zedulen zerrendak eta finka zerrenda poligonoka, bai eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda alfabetikoa titularka, 2019koak denak.

Aipatutako erroldak jendaurrean jartzen dira udaletxeko idazkaritzan hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko, eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Harana, 2019ko maiatzaren 3a

*Alkate-lehendakaria*

**PEDRO SAN VICENTE CORRES**